

Auzo Batzarrak 2022ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, besteak beste, honako hau erabaki du:

**03. Ur-Mia kirol eta solas elkarteari diru laguntza zuzena onartzea.**

Elkartearen izena:	Ur-Mia kirol eta solas elkarteari
Diru-laguntza kopurua €:	1.050€
Aurrekontu Partida:	1 01.481.01.334.00
Aurrekontu baimendua:	AD-111-2022

Diru-laguntzaren xedea eta azalpena:

Ur-Mia kirol eta solas elkartearen zuzen zuzeneko helburua da, herrian kirol eta solas jarduerak antolatzea.

Ereñotzuko Toki Entitate Txikiaren xedea, besteen artean, jardun hauek sustatzea ere bada. Interes orokorrekoa da elkarteari diru-laguntza ematea. Elkartea, irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta xede hori egiten diharduen elkarte bakarra da.

2022ko Ereñotzuko Toki Entitate Txikiko aurrekontuetan Ur-Mia kirol eta solas elkartearen aldeko diru-laguntza izenduna jasotzen da.

Diru-laguntzen 2020-2022 Plan Estrategikoan jasota dago.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak 16. artikuluan lankidetzak hitzarmenak formalizatzeko irizpideak ezartzen ditu.

Hori horrela, HONAKO ERABAKIA PROPOSATZEN DA:

1. Ereñotzuko Toki Entitate Txikia eta Ur-Mia kirol eta solas elkartearen arteko lankidetzak hitzarmena onartzea.
2. 1.050 euroko diru-laguntza onartzea, hitzarmenaren laugarren klausulan xedatutakoa betez.
3. Ordainketa, hitzarmenaren bostgarren klausulan jasota bezala egingo da: diru-laguntzaren %60 (630€) aurreratuko da erabaki honekin batera, eta gainontzeko %40 (420€) justifikazioa aurkeztean.

Ereñotzu, 2022ko maiatzaren 24an  
Unai Erroitzena Gamio, auzo alkatea

